

UEU-KO ARDURADUNEK OMENALDIA ESKAINI DIOTE MANEX GOIENETXE LEHENDAKARI OHI ETA HISTORIALARIARI

Udako Euskal Unibertsitatearen lehen ikastaroak abiatu dira Baionan atzo

Udako lehen oporrak hasten direnean jende askorentzat, dozenaka lagun bildu dira atzo Baionako Cassin lizeoan abiapena emateko Udako XXIV. ikastaroei. Antolatzaileek omenaldi txukuna eskaini diote Manex Goienetxeri oroitzeko lehendakari ohiak funtsezko lana egin duela egituraren alde.

Lutxi Fourcade / Baiona

IKASTURTEA ia bukatu da bigarren mailako ikasle gehienentzat, baina Cassin lizeoko hainbat ikasle ikusten ziren azterketen berri izateko atzo goizean Baionako eskolan. Era berean, beste ikasle batzuk bildu ziren ondoko gela batean baina partaideen adinak erakusten zuen ezohiko klaseak iraganen zirela lizeoko adar horretan. Izan ere, Udako Euskal Unibertsitateko XXIV. ikastaroak hasi dira eta Mikel Aizpurua UEUko lehendakariari zegokion abiapena ematea Baionako saio honi. Bigarren zatia Iruñean iraganen da uztailaren 15etik 27ra.

Aizpuruaren ondoan agertu ziren Edurne Alegria Iparraldeko UEUren arduraduna eta Manex Goienetxe, historialaria hautatu baitzuten antolatzaileek ikastaroen lehen mintzaldia egiteko. Izan ere, Goienetxe izan da luzaz UEUko lehendakaria, baita ikastaroen sortzaileetakoa ere duela 25 urte. Garai larri horretan, Hegoaldea frankismoaren menpean zegoen eta euskarazko ikastaroak sortu ziren Ipar Euskal Herrian. Franco zendu zenetik, ikastaroek muga zeharkatu zuten baina duela 11 urte antolatzaileek erabaki zuten saioak antolatzea Iruñean eta Baionan.

Mikel Aizpuruak omenaldi txukuna eskaini zion Manex Goienetxeri «Euskal Herriko historia ikertzen egin duen ekarpena oso garrantzitsua izan baita», azaldu zuenez. «Besteak beste euskara eta historia uztartzeari begira lan handia egin duelako». Bere lanen kalitatea aldarrikatu zuen, batez ere XVI. edo XVII. mendeen arteko historiaren ikerketak omendu zuen, azpimarratuz Manex Goienetxe adierazle ona zela UEUrentzat.

Aurkezpenaren ondotik, Manex Goienetxek eskainitako hitzaldiak abiapen ofiziala eman zion UEUko XXIV. edizioako lehen saioari. UEUko burua izan den historialariari *Euskal historiografiaren historia* ikertzea eskatu zioten antolatzaileek bere aitzinsolasean. Historiaren bete-



Edurne Alegria, Manex Goienetxe eta Mikel Aizpuru atzo, Baionako ikastaroak aurkezteko ekitaldian.

L. FOURCADE

beharra eta tokia gure gizartean eta kanpoko herriei begira azaldu zuen, baita «gure historia ezagutzeak nazio-erakuntzan duen garrantzia» ere. Alabaina, iragandako historia erabat baztertuz, aktualitateko gai minbera aipatu zuen Goienetxek, hots Rousseau lizeoko arazoa. Joan den astean BAB distrituak hartu zuen erabakiak luzaz Xalbador Ikastegiko zuzendari izandakoa hunkitu zuela aitortu zuen, oroitzuz XVIII. mendean lehen Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zela. «Euskarazko irakas-kuntza bultzatzea eta sustatzea funtsezkoa da eskualde baten garapen ekonomikoarentzat», azpimarratu zuen Goienetxek, euskal eskolaren beharra Baionan oroitzuz. Horretarako, hitzaurrea amaitzeko dei zabala luzatu zien Ipar Euskal Herriko arduradunei «beren arteko trintxera gerratik atera daitezen

euskal lizeoa sortzeko asmoz».

Nahiz eta lagun gutxi agertu ziren goizeko ekitaldian, azpimarratu behar da jadanik 100 bat ikasle ikastaroetan parte hartzeko nahikaria adierazia zutela. Ikastaroek sei egun irau-

nen dute eta ikasleak barreiatuko dira zazpi sailetan: Natur Zientziak, Kazetaritza, Grafologia, Zuzenbidea, Etnologia, Merkataritza, Didaktika eta Hizkuntza. Ohiturari jarraikiz, Kazetaritza sailak ikasle andana

bildu du eta 23 lagunek lehen saioan parte hartu zuten. Ikasle kopuru handia nabari da Zientzia sailan, 28 ikaslerekin. Bi sail horientzat antolatzaileen xedea izan zela mugaz gaineko ikastaroa eskaintzea.

Ikastaroen ekitaldi osagarriak

LEHEN ALDIKOTZ, Baionako Rene Cassin lizeoak aterbetzen du UEUko ikastaroa. Lizeo osoa ia hustu dute ikasleek, azken etsaminak bakarrik gainditzeko baitira. «Gure hori hautatu dugu gure behar berriei ihardes-teko», adierazi zuen Edurne Alegriak, Ipar Euskal Herriko ikastaroen arduradunak. Izan ere, Iruñea eta Baionako ikastaroen hurbiltzearen karietara, mugaz bestaldeko hainbat ikasle hartuko dute parte Baionako saioan eta beharrezkoa da fakultateak eskaintzen ez duen azpiegitura. Lizeoak, berriz, eskaintzen ditu ikas-

gelak, barnetegia, jantegia, hots, egonaldi luzeago batean behar diren erraztasun guztiak. Aukera paregabea izan da hainbat ikaslerentzat Baionan geratzeko, eta jadanik 28 ikasle izena eman dute barnetegirako. Bestalde, lizeoak erraztasunak ekarriko dizkie kazetari saileko ikasleei ariketa praktikoak egiteko. Izan ere, lizeoak aterbetzen du urtean zehar ikus-entzunezko formakuntza bat, eta estudioak edo materiala erabiltzeko aukera eskaini die UEUko partaideei.

Ohiturari jarraikiz, ikastaroak antolatzeaz gain egunean zehar,

ekitaldi osagarriak eskainiko dituzte UEUko arduradunek, eta lehen irteera egin zuten atzo arratsaldean Manex Goienetxerekin. *Baiona eta historia* ezagutzeko aukera eskaini zuen historialariak, eta hiri-ko karrikak zeharkatu zituzten Lapurdiko hiri nagusiaren gora-beheren berri izateko.

Bigarren ekitaldia bihar arratsean iraganen da eta irteera eskaintzeko ordez ikasleei, antolatzaileek kanpoko bertsiozaleak gonbitatu dituzte iraganen den saioan. Gaualdia hasiko da gaueko 9etan Cassin lizeoan eta lau bertsolari gazte entzuteko aukera izanen da:

Unai Agirre, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal eta Maialen Lujanbio.

Beste bi gaualdi Baionako Herriko Etxeko antzokian iraganen dira ondoko egunetan. Lehen ikuskizuna finkatu du Xirristi-Mirixti antzerki taldeak, eta *India beltzak* eskainiko du uztailaren 4an gaueko 9etan. Pantxo Irigarai idatzitako obra 26 aldiz eskaini dute jadanik eta sekulako arrakasta bildu du 3.000 ikusleren aurrean. Biharamunean, aldiz, aspaldiko partez Mikel Laboa entzuteko parada izanen da; kontzertua gaueko 9etan hasiko da. X

Aurten lehendabiziko aldiz, arlo bereko ikastaroak izango dira Baionan eta Iruñean, «mugaz bi aldeetako harremanak sendotzeko aukera paregabea delako, bai eta Baionako ikastaroak bultzatzeko ere», azaldu zuten antolatzaileek